



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

11. ERABAKIA: Bide obren aitzinkontua izenpetzea

Auzapezak azaltzen du presarik gabeko bide obrei dagokien aitzinkontu bat eskatu duela, 2021eko abenduaren uholdeen ondorioz.

Ondoko aitzinkontua aurkezten du:

MULTZOAREN DESKRIBAPENA	ENPRESA	Estimatutako zenbatekoa (eurotan, BEZa gabe, onartutako aldaerak barne, beharrez)
Bide obrak	SAS ERNAUT TP	56 975,00 Euro

Kontseilua aitzinkontu honi buruz iritzia agertzera gomitzen du.

Horrez gain, Auzapezak kontseiluari eskatzen dio gorago aipatutako eragiketari lotutako fakturen ordainketari dagokion erabaki oro hartzeko ahalmena hari ematea, kredituak aurrekontuan sartuak direnean. Bestalde, dossier honetan, beti herriko administrazioa errazteko xedez, kontseiluak emandako baimenak eta ahalmenak ordezkariari emanak izanen litzaizkioke beharrez.

Herriko kontseiluak, luzaz eztabaidatu ondotik,
BAIMENA EMATEN DIO auzapezari aurkeztua izan zaion aitzinkontua izenpetzeko;

ERABAKITZEN DU:

- Auzapezari gorago aipatutako eragiketari lotutako fakturen ordainketari dagokion erabaki eta aldaketa oro hartzeko ahalmena ematea, kredituak aurrekontuan sartuak direnean.

- Auzapezak ezin izanen duenean, bere ordezkariak baimen eta ahalmen horiek baliatzen ahalko dituela;

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/03/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/14an.

